


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHUko IKERTZAILE DOKTOREEN
ESPEZIALIZAZIORAKO KONTRATAZIOA EGITEKO
DEIALDIA
(2016)**

ATARIKOA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko ikerketa-zentro nagusia den aldetik, kalitateko ikerketa-jarduerak egiteko erantzukizuna dauka. Testuinguru honetan, unibertsitateko ikerketa taldeak beti ez dira gai ikerketa estrategikoaren erronkei aurre egiteko, dauzkagun baliabideak batzuetan ez baitira behar adinakoak. Helburu honen lortzeko, deialdi honen bidez, doktoreak espezializatu eta lan munduan txertatu nahi dira, unibertsitateko ikerketa taldeetarako aldi baterako kontratazio neurriak sustatuta.

Ikuspegi horretatik abiatuta, eta UPV/EHUko Ikerketa Planeko irizpideei jarraituta, deialdi honen helburua jakintza-arlo guztietako doktoreen ikertzeko gaitasuna hobetzea da, ikerketa jardueren kopuruak eta kalitateak gora egin dezaten.

Deialdi honetarako 1.000.000 euro bideratuko dira, Kontratu programako B27 ekintzan egokitutako finantziazioan oinarrituta dagokion aurrekontu kredituaren arabera: "Doktorego aurreko laguntzak indartzea (ohikoa eta COFUND) eta doktoreak ingurune sozioekonomikoan txerta daitezen sustatzea".

Horretara, Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzarako batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta gobernu kontseiluak 2016.eko apirilaren 21ean onetsi ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordetzak erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

1. OINARRIA. DEIALDIAREN HELBURUA

1.1. Deialdi honen helburua aldi baterako kontratazioa sustatuz ikertzaile doktoreak espezializatzea eta unibertsitateko onartutako ikerketa taldeetan sartzea da, edozein jakintza arlo zientifikotan.

1.2. Deialdi honen ondorioetarako, onartutako ikerketa taldea izango da UPV/EHUk edo Eusko Jaurlaritzak antolatutako taldeetarako deialdiren batean finantzaketarik jaso eta 2016an aktibo dauden ikerketa-taldeak.

Hori guztia bat dator Europar Batasunaren Batzordeak definitutako Ikertzaileak Kontratatzeke Jokabide Kodearekin (EEE/2005/251/EE).

2. OINARRIA. KONTRATUEN EZAUGARRIAK:

2.1. Kontratu hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 legearen 22. artikuluan (aurrerantzean ZTBL) ezarritakoari egingo diote men, eta bertan jasotzen ez den guztian, berriz, Langileen Estatutuaren 11.1 artikuluan jasotakoari, ondorengo berezitasunekin:

- a. Doktore titulua dutenekin baino ezin izango dira egin kontratuak.
- b. Egin beharreko lana, nagusiki, ikerketa lana izango da xede duena ikertzaileak prestakuntza maila eta espezializazio profesional handia lortzea esperientzia profesionala finkatze aldera.

2.2. Kontratatutakoa, beraz, UPV/EHUren guneren bati atxikiko zaio, bertan jardunen duelarik.

3. OINARRIA. ESKATZAILEEN BALDINTZAK

Deialdi honetan parte hartzeko, hautagaiek baldintza hauek bete behar dituzte:

3.1. Bizileku baimenaren jabe izan, Europako Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan.

3.2. Doktore titulua izatea eskaerak aurkezteko epearen amaiera data baino lehen.

Atzerriko zentroetan lortutako doktore tituluak homologatu egin behar dira.

Lan kontratua formalizatzerakoan egiaztatuko da doktore titulua badela eta, titulua atzerriko zentroetan lortutakoa bada, hura homologatuta dagoela.

3.3. Eskatzaileak ziurtatzea gutxienez bi lan dauzkala argitaratuta, berak bakarrik edo beste batzuekin batera eginak, CNEAIk kasuan kasuko jakintza arlorako onartutako irizpideekin bat datozenak. Doktorego tesia edo argitaletxeren batek plazaratutako doktorego tesia ez dira kontuan hartuko kasu honetan.

3.4. Eskaerak aurkezteko azken egunean lehenengo doktore tituluak ezin ditu hiru urte baino gehiago eduki.

Doktoregoa lortu zeneko eguntzat hartuko da doktorego tesia irakurri eta onartutako eguna. Aipatu epea kontatzerakoan ez dira sartuko Gizarte Segurantzako erregimen orokorrari jarraiki hartutako amatasun edo aitatasunagatiko, gaixotasun larriagatiko edo istripuagatiko atsedendialdiak; betiere, medikuak emandako bajak hiru hilabete edo gehiagokoa izan behar du.

3.5. Doktorego ondoko edo doktoreen hobekuntzarako laguntzarik ez edukitzea edo halakorik jaso ez izatea. Ez dira laguntza horien artean egongo doktorego berriak kontratatzeke deialdiaren laguntzak, UPV/EHUko doktorego ondoko prestakuntza programetan integratu bitartean.

3.6. Doktorego bat baino gehiago duten ikertzaileen kasuan, aurreko puntuetako baldintzak lortutako lehen doktoregoari aplikatuko zaizkio.

3.7. Europako erkidegokoak ez diren ikertzaile atzerritarrek Espainian bizitzeko eta lan egiteko baimena dutela ziurtatu behar dute, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Legeari jarraiki, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak emandako idazketan.

Egiaztapena kontratua formalizatzerakoan egin beharko da, 16.1. oinarrian ezarritakoaren arabera.

3.8. Ez UPV/EHU ez beste erakunderen batean kontratu mota honekin 3 urte baino gehiago igaro ez izatea.

4. OINARRIA. IRAUPENA

4.1. Deialdi honen babesean sinatuko den kontratua 12 hilabeterako izango da, formalizatzen den egunetik hasita.

4.2. Aurreko paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe, beste 12 hilabete luzatu ahal izango da, betiere, aurrekontuan baliabide nahikoak baldin badaude, deialdiaren hitzaurrean ezarritakoaren arabera.

Kontratua luzatu ahal izateko kontratatutako ikertzaileak gutxienez bi ekarpen egin behar izango ditu kontratua indarrean sartu aurreko hamabi hilabeteetan, CNEAIk kasuan kasuko jakintza-arlorako onartutako irizpideekin bat datozenak (Ebazpena, 2015eko azaroaren 26koa, Ikerketa Jarduera Ebaluatzeke Batzorde

Nazionalarena, ebaluazio eremu bakoitzeko irizpide espezifikokoak ezartzekoak. BOE, 292 zk., 2014-12-3koa).

Horrez gain, Europako erkidegokoak ez diren atzerritarrei bizileku baimena indarrean baldin badute luzatu ahal izango zaie kontratua.

4.3. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

4.4. Ikerketaren arloko errektoreordeak eten ahal izango dio beka interesatuari sei hilabetez gehienez ere, bekadunak horretarako eskari arrazoitua eginez gero. Hori eginez gero, etenaldi hori ezingo da berreskuratu eta laguntza erabakian ezarritako epean amaituko da. Laguntza etenda dagoeneko aldiaren, baja emango da gizarte-segurantzaren ondoren laguntza berriz jasotzeko izapideak egin ezean, bekari uko egin zaiola ulertuko da, eta automatikoki emango zaio baja.

5. OINARRIA. KONTRATUEN ORDAINSARIA

5.1. Deialdi honen barruan kontratatutako ikertzaileek jasoko duten urteko lansari gordina lanaldi osoko arduraldia duten ikertzaile doktoreei dagokiona izango da.

6. OINARRIA. KONTRATATUTAKO DOKTOREAK ATXIKIKO DIREN IKERKETA TALDEEN EZAUGARRIAK

6.1. Kontratatutako doktorea ikerketa talde bati atxikita egongo da.

Ikerketa taldeak aintzat hartuta beharko du UPV/EHUren edo euskal gobernuaren taldeetarako deialdietan eta aktibo egon 2016an.

6.2. Kontratatutako doktoreak atxikita egongo da ikerketa talde osatzen ez duten ekipo batean.

- a. Salbuespenez, ikerketa talderik osatu ez eta, gutxienez, hiru doktoreek osatutako ekipo batek abalaturako eskariak egin ahal izango dira.
- b. Pertsona guzti hauek lotuta beharko dute egon UPV/EHUrekin, lotura funtzionariala zein estatutu edo lan kontratu egonkorren bidezkoa izanik, barne delarik Ramón y Cajal programako ikertzaileak, UPV/EHUri atxikitako Ikerbasque fundazioko ikertzaileak eta CSIC-UPV/EHU ikergune mistoei atxikitako CSICeko ikertzaileak.
- c. Honez gainera, eskaera abalaturako duten doktoreek osatutako ekipoak, gutxien dela, I+G proiektu bat garatzeko finantzaketa eduki behar du UPV/EHUtik kanpoko deialdi lehiakorretan; finantzaketa horrek gutxienez 12 hilabete iraun behar du, eskaerak aurkezteko azken egunetik hasita eta proiektua martxan egongo da eskaerak aurkezteko azken egunetan eta finantzaketaren onurdauna UPV/EHU bada nahitaez.

Proiektu horiek erakunde hauen deialdi lehiakorren baten barruan egon behar dute:

- i. Europako Batasuna
- ii. Arloan eskumenak dituzten ministerioak.

- iii. Euskal Gobernuua
- iv. Ikerketa proiektuen kontratuak, urtean 50.000 euro baino gehiagokoak.

6.3. Eskatzailearen zuzendari zientifikoak azken sei urteetako (seiurteko aktibo) ikerketa-jardueraren inguruko ebaluazio positiboa egiaztatu beharko du, hau da, eskaria aurkezterakoan, ikerketa seiurteko aktibo bat izango du.

7. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

7.1. Eskubidea dute txertatzen direneko sail, institutu edo guneen laguntza eta sostengua jasotzeko, hauen baliabideen neurrian, beren ikasketak eta ikerketak egiteko, beti ere tokian tokiko erabilgarritasunaren barruan.

7.2. Zeregin osagarriak egin ahal izango dituzte proposatutako ikerketa-jarduerarekin erlazionatutako irakaskuntza lanetan (gehienez 80 ordu urtean), dagokion sailarekin hitzarmena egin ondoren eta UPV/EHUren zerbitzura dauden langileentzako bateraezintasunei buruzko indarreko araudiari lotuta. Zeregin horietan inoiz ezin izango dute irakasgaien arduradun izan, probak egin edo ikasleak ebaluatu.

7.3. Onuradunek unibertsitateko Ikerketako Zerbitzu Nagusiak (SGIker) erabili eta baliatzeko bermea izango dute, bai eta bere baitan hartzen dituen ikerketa taldearen azpiegiturak eta materiala ere.

7.4. Era berean, eskubidea izango dute sailaren ikerketa baliabideak erabiltzeko, eta ikertaldeak bere ikerlana egiten duen ikastegiko baliabideak ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez betiere.

8. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

8.1. Atxikitako sailean edo institutuan deialdi honetako 16.2. oinarrian ezarritako epean sartzea.

8.2. Atxikitako sail edo institutuaren funtzionamendurako arauak bete beharko dituzte, bai arduraldiari dagokionez, bai eginkizunei dagokienez, bai eta ordutegi eta oporrei dagokienez ere.

8.3. Beren ikerketa-lana atxikitako sailean edo institutuan egitea.

8.4. Txosten, formulario eta gainerako agiriak betetzea, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak (aurrerantzean IGZ) edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

8.5. Irakasle eta Ikertzaileen arloko Errektoreordetzari jakinaraztea deialdi honen babesean sinatutako kontratuari uko egiten diotela, edo deialdiaren helburuak lortzea galarazten dieten jazoerak edo kalteak izan dituztela. Deialdi honek iraun bitartean jasotako beste laguntza edo ordainsarien berri ematea, espresuki.

8.6. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak iraun bitartean egindako lanak sinatzean Euskal Herriko Unibertsitatearekiko atxikipenaren aipamena egin beharko da.

Era berean, UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ikertzaileak espezializatzeko ematen dituen laguntzen deialdia aipatu beharko da kontratuak iraun bitartean egindako ikerketa-jardueretatik eratorritako argitalpenetan eta bestelako emaitzetan, eskerrak emateko atalean.

8.7. Eskumena duten organoek egin ditzaketen finantza froga eta kontrolak betetzea eta eskatutako informazio guztia ematea, aipatutako ekintza guztiak gauzatzerakoan.

8.8. UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, egindako ikerketa-lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitortpenari betiere eutsiz.

8.9. Deialdi honen babesean kontratua formalizatzeak deialdiko arauak errespetatzea dakar, baita Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eta atxikitze-sail eta -institutuak, dauzkaten eskumenei jarraiki, lana ikuskatzeko eta ebaluatzeko ezarritako arauak errespetatzea ere.

8.10. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak orokorrak eta espezifikoak betetzea.

9. OINARRIA. DEIALDIAREN BARRUAN HAUTATUTAKO EK ATXIKITA DITUZTEN IKERKETA TALDEEN BETEBEHARRAK

9.1. Zuzendari zientifiko bat izendatzea, batetik, akademia eta ikerketa lana koordinatu eta bideratzeko ardura izango duena eta; bestetik, hautatutako pertsonak dauzkaten betebeharrak betetzen dituztela ziurtatuko duena; laguntzaren helburua betetzen dela bermatuz.

Zuzendari zientifikoaren betebeharra izanen da doktoregaiei emandako laguntza zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, laguntza indarrean den bitartean arduradun gisa arituko direlarik. Era berean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote tesiaren defentsa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

9.2. Prestakuntza programaren garapen egokia zaindu beharko dute, eta ikerkuntzarekin nahiz ikerkuntza egiteko behar den prestakuntzarekin zerikusirik ez daukaten jarduerak eragotzi beharko dituzte.

9.3. Ikertzaileei behar duten laguntza eskaintzea eta beren lana behar bezala egiteko behar dituzten baliabideak, tresnak edo ekipamenduak eskura jartzea. Kontratutako ikertzaileen eskura jartzea lana behar bezala egiteko behar dituzten instalazioak eta baliabide materialak, eta zentroan antzeko kategoria duten langileen eskubide eta prestazioak dituztela bermatzea.

9.4. Inork laguntzari uko egiten badio, edo laguntzaren bat eteten bada, edo laguntzaren bat eman zeneko egoera aldatzen bada, horren berri ematea IGZri, gehienez 10 laneguneko epean, aipatutako jazoerak gertatzen diren egunetik hasita.

9.5. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IGZk edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

9.6. Ikertzailearen Gutun Europarrean aurreikusitako betebeharrak betetzea.

10. OINARRIA. IKERKETA JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIBIOAK

10.1. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- Indarreko arautegia betetzea: ikerkuntza biomedikoaren 14/2007 legea, biobankuei buruzko 1716/2009 ED, pazientearen autonomiari buruzko 41/2002 legea, datuen babesari buruzko 15/1999 legea eta UPV/EHUren datu pertsonalak babesteko 2008ko arautegia.
- CEID/CEISH-UPV/EHU Ikerketako Batzorde Etikoaren aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

10.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ordeztu, murriztu eta fintzeko irizpideak errespetatu, nazioartean sustatu bezala.
- Animaliekiko ikerkuntzaren arloan (53/2013 ED) indarrean den arautegia bete.
- Animaliekiko Esperimentaziorako Ikerketako Batzorde Etikoaren (AEIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

10.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Prebentzio, zuhurtasun eta informazioaren printzipioak errespetatu, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionean.
- Arlo honetan indarrean den legeria bete: laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 legea; langileen agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko 664/1997 ED; langileen agente kantzerigenoen esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko 664/1997 ED; genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duen 9/2003 legea eta 178/2004 ED.
- Agente biologikoekiko eta/edo genetikoki eraldatutako organismoen Ikerketako Batzorde Etikoaren (ABIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

10.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrio zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da hauek betetzea: 45/2003 Legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioetatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena

eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan beharko da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, baita biobanku horiek jarduteko oinarrizko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarrizko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira (2011ko abenduaren 2koa, ostirala, EBO; 290. zk.).

10.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko eta/edo merkaturatzeko enpresekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

11. OINARRIA. ESKAEREN FORMALIZAZIOA

11.1. Ezinbestekoa da eskatzaileak atxiki nahi duen ikertaldeko ikertzaile nagusiak bermea ematea.

11.2. Hautagaiek eskaera bana aurkez dezakete eta ikertalde bakoitzak hautagai baten eskaera besterik ezin dezake berme deialdi honetan.

11.3. Doktore eskatzaileen zuzendari zientifiko gisa identifikatutako pertsona guztiak lotuta beharko dute egon UPV/EHUrekin, lotura funtzionariala zein estatutu edo lan kontratu egonkorren bidezkoa izanik, barne delarik Ramón y Cajal programako ikertzaileak, UPV/EHUri atxikitako Ikerbasque fundazioko ikertzaileak eta CSIC-UPV/EHU ikergune mistoei atxikitako CSICeko ikertzaileak.

11.4. Kontratua formalizatu aurretik, kasuan kasuko ikerkuntzarako etika batzordearen aldeko txostena aurkeztu beharko da, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.

11.5. Eskariak nahitaez bete behar dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunean (<http://www.ikerkuntza.ehu.eus>) diren formulario ofizialetan.

Eskariaren formularioa behin bete eta gero, harrerako ikertaldeko ikertzaile nagusiak eskuz edo digitalki, ziurtagiri elektronikoaren bidez, sinatuta, PAPEREAN eta FORMATU DIGITALEAN aurkeztuko dira (**PDF y Word**) USB, CD edo DVD biltegiragailu batean, deialdian eskariak aurkezteko zehaztutako epearen barruan. Honekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- a. **Jarduera garatuko dueneko sail edo institutuaren** baimena Agiri hau paper euskarrian aurkeztu behar da bakarrik.
- b. **Eskatzailearen curriculum vitae**, eredu araututakoren batean. Agiri hau PDF euskarrian aurkeztu behar da bakarrik.
- c. **Ikerketaren uzendari zientifikoaren curriculum vitae**, formatu araututakoren batean. Agiri hau PDF euskarrian aurkeztu behar da bakarrik.
- d. **Doktore titulua**. Ikasketak atzerrian eginda izanez gero, dokumentazioari gaztelaniazko edo ingelesezko itzulpena gehitu behar zaio. Kasu horietan,

eskaera positiboki baietsiz gero, kontratuen esleipena ez da behin betikotzat hartuko atzerriko doktore titulua Espainiako tituluarekin homologatu arte. Agiri hau paper eta PDF euskarrietan aurkeztu behar da bakarrik.

- e. **NAN, atzerritarren identifikazio zenbakiaren edo pasaportearen kopia.** Agiri hau paper eta PDF euskarrietan aurkeztu behar da bakarrik.
- f. **Bizileku baimenaren kopia behar da 3.7 oinarriak aipatzen dituen kasuetarako.** Agiri hau paper eta PDF euskarrietan aurkeztu behar da bakarrik.
- g. **Gizarte Segurantzak lan bizitzari buruz emaniko ziurtagiria.** Agiri hau paper euskarrian aurkeztu behar da bakarrik.
- h. **Euskararen jakite maila egiaztatzeko ziurtagiria.** Agiri hau paper euskarrian aurkeztu behar da bakarrik.

11.6. Ikerketaren arloko errektoreordetzak egindako deialdietan, ikertzaileek UPV/EHUk darabiltzan bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa.

Euskarazko dokumentazioa euskaraz ez dakiten ebaluatzaileek ebaluatu behar dutela ikusiz gero, errektoreordetza eskatzailearekin harremanetan jarriko da eta zer aukera dauden azalduko dio:

Eskatzaileak berak epe luzeago bat izatea dokumentazioa gaztelaniara edo ingelesera itzultzeko.

Errektoreordetzak enpresa espezializatu baten esku uztea itzulpena; hala eginez gero, eskatzaileak arrazoizko epe bat izango du itzulpena baliozkotzeko, ebaluatzera bidali baino lehen.

12. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaerak hautagaiak aurkeztu beharko du eta behar bezala aurkeztutzat joko da baldin eta dokumentazioa, behin bete ostean, UPV/EHUko Ikerkuntzarako errektoreordeari bidali bazaio, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetan dauden erregistro nagusietako batean edo UPV/EHUren 2012ko maiatzaren 16ko erabakian (EHAA, 2012ko ekainaren 18koa) aipatzen diren bulegoetako batean aurkeztuta; nahi izanez gero, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Bateratuari buruzko 30/92 legearen 38.4 artikulua araberak ere aurkez daitezke.

Hauxe da erregistroetako ordutegia: astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30era; urte osoko ostiraletan, udako lanaldian eta udaberriko eta neguko txandetan, berriz, 9:00etatik 13:00etara.

Eskarrik edozein posta bulegotan ere erregistratuko ahal dira. Honelakoetan, dokumentazioa gutun irekian aurkeztuko da, posta zerbitzuko pertsonalak eskariaren lehenengo orria zigilatuko badu. Ondoren, dokumentazio osoa posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza
Ikerketarako Deialdien Atala
Errektoregoaren eraikina

Sarriena auzoa, z/g
48940 Leioa (Bizkaia)

13. OINARRIA. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea 2016ko ekainaren 10ean amaituko da.

14. OINARRIA. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

14.1. Aurreko artikuluan aipatu egunetik hasi eta, gehienez, hogeiei egun naturaleko epean, jasotako eskaeren zerrenda argitaratuko da Ikerketaren arloko errektoreordetzaren <http://www.ikerkuntza.ehu.eus> web gunean, Doktorego ondoko beken atalean,

Zerrenda argitaratu eta gero, hamar lanegunen epea emango da adierazitako hutsuneak konpontzeko eta, epe horretan, ezingo da eskabiderik osotasunean aldatu edo eskatu ez diren dokumentuak aurkeztu.

Epe hori igaro eta falta zena aurkeztu ez bada, eskabidea baztertutzat emango da eta Ikerkuntzarako errektoreordetzak dagokion erabakia emango du.

14.2. Aurkeztutako eskariak ikusita, IGZk baieztatuko du deialdi honen baldintzak bete egiten dituztela.

14.3. Eskaerak bideratzeko eta ebaluatzeko prozesua IGZk antolatuko du. Oinarri honetan zehaztutako 14.6 atalaren 1-4 ebaluazio irizpideen balorazioa ANEPek egingo du, kanpo-prozesu baten bidez, eskaeran adierazitako jakintza-arloa erabiliz.

14.4. ANEPek egindako ebaluazio txostenak IGBBri bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

14.5. Diru-laguntzak esleitzeko alderdi hauek hartuko dira kontuan:

Irizpideak	Gehieneko puntuazioa
1. Hautagaiek dagokien ikerketa-alarrean egin dituzten ekarpen zientifiko eta teknikoak.	30 puntu
2. Ikerketa proiektuaren interes zientifikoa eta kalitatea, horren finantzaketa aurreikuspen egokia barne	20 puntu
3. Ikerketako emaitzek arlo akademikoan izan dezaketen eragina eta emaitzak hedatzeko aukera.	20 puntu
4. Hautagaia sartuko den ikertaldearen historial zientifikoa eta teknikoa, taldea osatzen duten kideen kopuruaren arabera.	25 puntu
5. Euskara maila (a)	5 puntu

GUZTIRA	100
----------------	------------

(a) oharra: Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara mailaren egiaztatzea aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztatzea eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 egiaztatzea eta baliokideak: 3 puntu.
- Ez da balioetsiko adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztatzerik.

Egiaztatzeri dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

15. OINARRIA. EBAZPENEA

15.1. IGBBk behin-behineko ebazpena egingo du. Interesdunei horren berri emango die eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web gunean argitaratuko du. Eskatzaileek ebaluazioan lortutako puntuazioa ere adieraziko du.

Interesatuak hamar egunen epea izanen du, gehienez, zeinek bere onarpena, ukoa edo egoki leritzokeen alegazioak adierazteko.

Aipatu epean alegaziorik edo ukorik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

15.2. Aipatutako epea igarota, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak alegazioak helaraziko dizkio Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeari, honek azter ditzan eta emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpen proposamena egin diezaion Ikerketaren arloko errektoreordeari.

Behin-behineko ebazpenaren aurkako alegazioak egiteko epean alegaziorik jasotzen ez bada, Ikerketaren arloko errektoreordeak kontratazioaren aldeko edo aurkako behin betiko ebazpena emango du.

Kontratazioaren emate edo ukatzeko azken ebazpena jakinaraziko zaio interesatu bakoitzari, egindako ebaluazioaren kopia bat atxikita.

15.3. Ebazpenaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legearen 116 eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Era berean, aipatu ebazpenaren kontrako administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

15.4. Deialdi hau argitaratu eta sei hilabetetara, iragarki-oholetan kontratazioak adjudikatzeko erabakirik argitaratzen ez bada, interesatuek ezetsitzat har dezakete beren eskabidea, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Bateratuari buruzko azaroaren 26ko 30/92 legearen 44.1 artikulua dioen moduan.

15.5. Eskatzailearen batzuen berdinketa gertatuz gero azken puntuazioan, honako irizpide hauen arabera ordenatuko dira eskariak, hurrenez hurren, berdinketa hautsi arte:

- a. Lehenetsi egingo da 14.5 oinarriaren 1. irizpidean puntuaziorik altuagoa lortu duen eskaria.
- b. Lehenetsiko da deialdi honetan arrakasta tasarik txikiena lukeen zientziaren arloari legokiokeen eskaria (arrakastaren %a eskariko, arlo bakoitzean).
- c. Lehenetsi egingo da 14.5 oinarriaren 2. irizpidean puntuaziorik altuagoa lortu duen eskaria.

16. OINARRIA. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

16.1.15.1. oinarrian adierazitako jakinarazpena jaso eta hamar egunetan, kontratuen adjudikaziodunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte, behar bezala beteta, Ikerketaren arloko Errektoreordetzan:

- a. Deialdi honen esleipendun gisa dituzten betekizunen onarpen dokumentua.
- b. Identifikazio-fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte-Segurantzako afiliazio-zenbakia dituenak.
- c. Zinpeko adierazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluan adierazten den kontratua egiteko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena.
- d. Doktore-tituluaren fotokopia konpultsatua edo tituluari dagokin homologazio-agiria.
- e. Lanean hasi delako agiria.
- f. Europako erkidegokoak ez diren ikertzaileek Espainian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimen administratiboa aurkeztu beharko dute, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak emandako idazketan).

Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratuari uko egiten zaiola ulertuko da.

16.2. Eskakerak onartuta dituzten eta 3.1. oinarriaren arabera titulua homologatu behar duten hautagai atzerritarren kasuan, 16.1. oinarrian ezarritako 10 egunen epea titulua homologatzeko dokumentuan adierazten den egunetik hasiko da zenbatzen.

16.3. Aurreko 16.1. oinarrian adierazitako agiriak Ikerketaren Gestiko Zuzendaritzan jaso eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean kontratuak formalizatuko dira eta kontratatutako ikertzaileak dagokien unibertsitate sail edo institutuetan lanean hasiko dira.

Egun horretan adjudikazioduna kontratua sinatzera etorriko ez balitz edo sailean, institutuan edo gunean lanean hasiko ez balitz, kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

16.4. Eskariak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da eta, hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

16.5. 16.3. atalean adierazi den kontratua formalizatzeko eta lanean hasteko epea gehienez 6 hilabete atzeratu ahal izango da, betiere, hautagaiak behar bezala justifikatzen badu eta zuzendariak eskaera onartzen badu.

17. OINARRIA. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA

17.1. Deialdi honen babesesan kontratua formalizatzeko ez dakar kontratu harreman egonkorrik esleipendunaren eta UPV/EHUren artean; harreman hori kontratuaren indarraldia bukatzearekin batera amaituko da.

18. OINARRIA. UKO EGITEAK, BAJAK ETA KONTRATUAREN AMAIERA

Deialdi honen bidez kontratatutako langileen ukoen, bajen eta gainerako gorabeheren berri tesi zuzendariak edota kontratatutako langileak berak eman behar dio, hori eragin duena gertatu eta hiru egunen buruan, UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen arloko Errektoreordetzari; jakinarazpenari gehitu behar dizkio kasu bakoitzari dagozkion egiaztapen dokumentuak.

19. OINARRIA. JARRAIPENA

19.1. Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonalak laguntzaren baliatzeko beharko lirakeen txosten, inprimaki eta gainerako dokumentu guztiak bete beharko ditu; hain zuzen ere, Ikerketaren arloko errektoreordetzak edo/eta deialdi honen kudeaketan laguntzen duten gainerako sailek edo zerbitzuek eskaturikoak.

19.2. Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonalak laguntzaren baliatzeko beharko lirakeen txosten, inprimaki eta gainerako dokumentu guztiak bete beharko ditu; hain zuzen ere, Ikerketaren arloko errektoreordetzako IGZk edo/eta deialdi honen kudeaketan laguntzen duten gainerako sailek edo zerbitzuek eskaturikoak.

Ikertzailea atxikitako ikerketa-taldearen ikertzaile nagusiak ados egon behar du txostenekin. Gainera, txostenarekin batera egindako lanaren deskribapen zehatza aurkeztu behar da eta zer helburu lortu diren adierazi.

AZKEN XEDAPENA

Interesatuek aurkaratu egin ditzakete deialdi hau, bere oinarriak eta deialdiak eragindako administrazio-egintzak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak eta Administrazio Auzietako Jurisdikzioaren Legeak zehaztutako eran eta epean.

Leioa, 2016ko apirilaren 21ean.

Fernando Plazaola Muguruza
Ikerketaren arloko errektoreordea